

B

BARREN

TOKIKOM

Garagardoak bustitako asteburua

Aprobetxatu ezazu aukera
hau, uztailean BEZ-IVAK
gora egin aurretik!



- Etxebizitza BERRIAK
- 2 eta 3 logela
- Horma-armairuak
- Guztiz hornitutako sukaldea
- Garaje bat baino gehiago eskuratzeko aukera
- Bi eredu-etxebizitza bisitatzeko aukera

Entregatze epea: berehalakoa

Aurki, haurrentzako jolaslekua



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

Urgazi Triatloi Taldea

Askotan aipatu izan dut aitarekin atera nintzela lehenengo bizikletan. Debaraino. Garai hartan dantza genuen lehenetasun, eta eskubaloian ere aritzen nintzen. Korrika ere bai tarteka. Igeri egitea gustatzen zitzaidan, baina hori ere esana dut inoiz hemen, ni ez naiz "arrain" ona.

Barakaldon egin genuen lehen duatloia, 2005ean. Leher eginda amaitu genuen hiru lagunek, baina pozarren. Korrika gindoazela antolatzaileak ibilbideko zinta kentzen ari zirela uste dut. Baina aita eta mutila zain neuzkan helmugan, eta irribarrez iritsi nahi nuen! Oroitzapen bikainak ditut, eta horri eskerrak jarraitu nuen kirol honetan.

Izan ere, askori entzun izan diet, lehen esperientzia negatiboa baldin bada, ez dela aurrerantzean gehiagorako gogorik izaten. Horregatik, neurria hartzea da garrantzitsua. Baina ez al da ba hori bizitza honetan edozertarako gakoa? Neurria, neurria.

Triatloian hasten diren asko ikusi ditut, hasi eta berehala, Zarauzko triatloia egiteko irrikaz. Bejondeiela! Ni ez naiz horretarako gauza. Egiari zor, beldurtiegia ere banaiz, neure buruarengan konfiantza gutxi izaten dut askotan, eta hori ere ez da kontua. Ez bata, eta ez bestea. Jana, edana eta lana bezala, kirola ere neurrian egitea baita kontua. Askotan itsutu egiten gara, eta zorrotzegi eta estuegi jokatzeko dugu geure buruarekin. Ni ez naiz lehia-zalea. Ez horixe, baina geure buruari mugak, denborak, helburuak eta bestelakoak jartzea ere lehiatzea da! Eta hori guztia

aurrera egiteko motibazioa da, baina baita kirola obsesio bihurtzeko bidea ere.

Triatloia kirol zirraragarria da, mendia bezala. Edozeini aholkatuko nioke probatzea. Giro aparta izaten da probetan. Ez begiratu aurrekoei, ez erreparatu materialari. Zuk ekin zeureari. Urteak pasatu dira, eta aitak orain ere esaten dit: Ainho, amaitzea soilik asko da! Horregatik, Urgazi Triatloi Taldearen izenean, atek zabalik ditugula esan nahi dizuet denoi, edozertan laguntzeko (blog berria daukagu orain: www.urgazi.blogspot.com). Hartu gogoan: kirola zaletasuna da gehienontzat, eta gozatzea da helburua.

Ainhoa Lendinez



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Hartu gogoan: kirola zaletasuna da gehienontzat, eta gozatzea da helburua"

ATXUTXI AMAIKA UDALEKUE TAN III 3 - 4 - 5 - 6koentzat



NON: **Etxe Txiki** (Zarautz)
NOIZ: uztailak 1-10
PREZIOA: 220 euro
EZAUGARRIAK: hondartza, parkea...
surf ikastaroa, Getariara irteera, bertso afaria..
PLAZA KOPURUA: 30.

NON: **Irañeta** (Nafarroa)
NOIZ: uztailak 26-abuztuak 4
PREZIOA: 220 euro
EZAUGARRIAK: igerilekuak, frontoia...
EKINTZAK: bertso-afariak, bizikleta txangoak,
soka-zirkuitua...
PLAZA KOPURUA: 35.



Elgoibarren auzo lanean

NON: elgoibarren
NOIZ: uztailak 12-23
ORDUTEGIA: 09:00-13:30
(irteera egunetan 18:30ak arte)
PREZIOA: 75 euro
PLAZA KOPURUA: 30
EKINTZAK: irteerak, igerilekuak,
auzo lana, bisita interesgarriak...



Izen-ematea MAIATZAREN 7ra arte izango da Elgoibarko Izarran.

Plazak bete arteko ordena errespetatua da.



Elgoibarko Izarra



Bosberro ditu
Kasarnak Urgaztek

Bobeslea:



PPS
Ongizate Iturri
Luzkeru Sot



Laguntzaileak:



ELGOIBAR BERDEA

Ohitura garbiagoak bultzatzeko asmoz, Elgoibar Berdea egitasmoa jarri du martxan Udalak. Bizilagunen, herritarren eta ingurumenaren ongizatea sustatzea da helburua. Horretarako, hainbat ekintza prestatu dituzte, Elgoibartarrek kontzientzia “berdea” har dezaten, eta 2010ean jarriko dituzte abian.

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak Elgoibar Berdea programa aurkeztu zuten, joan den barixakuan. Ekologiaren, ekonomiaren eta gure herrian izango diren belaunaldi berrien mesedetan, bizitzeko ohitura berriak sustatzea da egitasmoaren helburua. Hortaz, ingurumena zaintzeko eta herritarren ohiturak aldatzeko hainbat ekimen jarriko dituzte martxan 2010ean. Olioia jasotzeko edukiontziak jarri, konposta egiteko proiektu pilotuak bideratu, udalerriko baserrietan energia berriztagarriak jartzeko aukerak landu, eta energiaren eraginkortasunari buruzko azterketak egitea izango dira aurtengo egitekoak, besteak beste. Alfredo Etxeberria alkateak esandakoaren arabera, ekintza batzuk martxan daude dagoeneko, eta gainerakoak luze ez dela abiatuko dituzte.

Udaleko ordezkariak gain, Foru Aldundiko Javier Zarraonaindia Ingurumen Zuzendaria ere izan zen aurkezpenean, eta, Gipuzkoan proiektu “eredugarria” dela esan zuen.

Elgoibarko Udala herri garbiago baten alde lanean ari da azken urteotan Agenda 21 egitasmoarekin, eta bide beretik abiatu dute Elgoibar Berdea proiektua.



Bizitzeko ohitura garbiagoak sustatzea da Elgoibar Berdea egitasmoaren helburua





HAMAR PUNTUKO DEKALOGOIA

1. IRAUNKORTASUNA SUSTA EZAZU.

Hondakin gutxiago sortu, berrerabili eta birziklatu dira gogoan izan beharreko hiru gakoak.

2. HONDAKIN GUTXIAGO SORTU:

Erosketa ekologikoa bultzatzea da asmoa. Etxeko hondakinak murrizteko, hondakin gutxiago sortu behar da. Horretarako, erosketak egiterakoan kontuan hartu beharreko hainbat aholku eskaini dituzte: erosketa zerrenda egitea, oihalezko poltsa erabiltzea, ahalik eta estalgarri gutxien dituzten produktuak erostea...

3. BERRERABILI:

Uda bukaera alderako Garbigunea jarriko dute Arriaga industrialdean. Garbigunean etxean sortzen diren hondakin guztiak laga ahal izango dira, eta langile autonomoek eta profesionalak sortzen dituzten hondakin asko eta asko ere bai. Kontrolatu gabeko hondakinen isurketa murriztea da garbigunearen helburua.

4. BIRZIKLATU:

Joan zen otsailean ipini zituzten Elgoibarren olio birziklatzeko hamar edukiontzi. Orain, sentsibilizazioan eragin eta erabilpena indartzea da Udalaren asmoa. Hortaz, herritarrek olio birziklatzeko ohitura hartu dezaten, Txankakua eta Barren Azoka merkatari elkareek bi mila inbutu berezi salduko dituzte, euro batean, olio plastikozko ontzietara botatzeko.

5. KONPOSTA EGIN:

Elgoibar Berdea programaren baitan

biokonposta egiteko programa pilotua jarriko dute abian. Gutxi gorabehera, biztanleen %10ek programa horrekin bat egin ahal izango dute. Lehendabiziko fasean, boluntarioak lortzeko ahalegina egingo dute. Boluntarioei poltsa biodegradagarriak emango dizkiete hondakinak jasotzeko. Kanean jarriko diren edukiontziak erabiltzeko giltza ere emango diete. Programan jasotakoaren arabera, edukiontziaren lagatako hondakinak bildu eta konposta egingo dute. Gainera, Udalak konpost hori berrerabiltzeko konpromisoa hartuko du.

6. ENERGIA GARBIA, EGUZKI ENERGIA:

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektu pilotuari esker, plaka fotoboltaiakoak jarriko dituzte Udalaren zenbait egoitzetan; hasteko, Herri Eskolan eta Mintxetan. Proiektu pilotu horri esker frogatu nahi da eguzkia energia baliabide energetiko egokia, eta aldi berean, inbertsio bideragarria dela.

7. ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA.

Baserri auzoetan energia berriztagarrien erabilera sustatzeko hainbat azterketa egin ditu Udalak. Efitermik enpresa elgoibartarra arduratu da ikerketa egiteaz, eta landa eremuko ehun etxebizitzentzako diru laguntzak bazeuden ere, 25 izan dira, oraingoz, interesa agertu dutenak. Apiril amaierara arte dago izena emateko aukera.

8. EKONOMIA IRAUNKORRA:

Elgoibarren eta Eibarren, ibilgailu elektri-

koak alokatzeko proiektua jarriko dute martxan. Herritarrek orduka alokatu ahal izango dituzte ibilgailu elektrikoak herriaren bertan, edo inguruetan, joan-etorri laburrak egiteko.

9. KONTZIENTZIA EKOLOGIKOA:

Kontzientzia ekologikoaren inguruko ekintzak antolatuko dituzte, ikasle zein helduentzat. Zabalduko diren birziklapen ohitura berriei esker, herritarrek formatu, hezi eta kontzientziaztea da asmoa. Atal honek bi fase izango ditu: lehenengoan, Ikastolan eta Institutuan diharduten 12 urteko ikasleek etxean sortutako hondakinak pisatuko dituzte, hilabetez. Bigarren fasean, ikasle horiei etxeko hondakinak birziklatzen eta berrerabiltzen erakutsiko diete. Ondoren, hondakinak berri pisatuko dira, azterketa konparatiboa egiteko.

10. DESPLAZAMENDUAK OINEZ:

Gaur egun, Elgoibarko Udalak, Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean, "Eskolara oinez noa" izeneko proiektua jarri nahi du abian. Ekimena 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzako izango da. Ikasleak eskolara oinez eta euren kabuz joatea da helburua. Segurtasuna bermatze aldera, haurrek, helduen eta udaltzainen laguntza izango dute uneoro. Proiektu horren bidez, mugikortasun iraunkorra sustatzea ez ezik, ikasleen, gurasoen, aiton-amonen eta zaintzaileen arteko harremanak ere sendotuko direla uste du Udalak.



Ezkerrean, konposta egiteko edukiontziak, olio plastikozko ontzietan sartzeko inbutu eta zaborra banatzeko poltsak. Eskuman, Alfredo Etxeberria moto elektriko bat probatzen. Aurten jarriko dute ibilgailu elektrikoak alokatzeko zerbitzua martxan.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskolara oinez noa

Eskerrik asko Udalarari honelako ekimenak bultzatzeagatik. Eskerrik asko gure ingurumenaz eta seme-alaben osasun eta segurtasunaz arduratzeagatik.

Proiektu honen inguruan zenbait gurasok adierazitako kezka entzun ondoren, nire iritzia adierazi nahi dizuet: umeak eskolara oinez joan ahal izateko, herri mailan zenbait gauza hobetzeko egon badaude (espaloiak, autoak, zebra bideak...), baina ez dugu ahaztu behar ekimen honen bitartez hobekuntza horiek lortzeko aukera bikaina ere badugula.

Ekintza berrien aurrean beldurra izatea normala eta errespetagarria dela uste dut, baina proiektu hau aurrera eramaten ari garenek (Udaleko hirigintza arduraduna, Agenda 21eko udaletxeko teknikaria, proiektua bultzatzen duen enpresako langileak, udaltzainak, bi ikastetxeetako irakasleak eta gurasoak) arrisku puntu guztiak aurreikusten eta saihesteko lanetan gabiltzala jakinarazi nahi dizuet. Ibilbideak, beti ere, umeen segurtasuna bermatzen nahi dugu. Horrez gain, ez da ahaztu behar proposatuko den ibilbidea bi helduren laguntzaz egingo dutela beti meek.

Nire kasuan, azkenaldian umea oinez eraman izan dut Herri Eskolara. Bide desberdinak probatu izan ditut, eta proiektua segurtasunez aurrera eramateko aukerak badaude. Gure seme-alabei eta ingurumenari onurak ekarriko dizkieten proiektuak martxan jartzeko elkarrekin egin behar dugu lan, ahal den heinean proiektuaren parte hartuz, gainera. Elgoibarren an-

tzeko ezaugarriak dituzten beste herri batzuetan umeak oinez joaten dira eskolara. Gurean, zergatik ez?

Nerea Gorostiza

XVII. J. Gurrutxaga krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 25ean, ospatu genuen XVII. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiak: Arauri, Arbeloa etxebizitza agentzia, Arkauz, Armueta harategia, Astigarra kirolak, Arrieta, Azpeleta, Ecenarro, Elena Herrero, Estudios Arrillaga, Etxeberria farmazia, Etxekit, Farma Apraiz, Ferpi, Foterok okindegia, El Gautxo, Goar, Gloria, Hair ileapaindegia, Harzubi, Hurbil, Ibai Ondo, Iraola harategia, Ion jantzi denda, losu Bitxidenda, Julio Bueno, Kermen, Kontxi, Kaia, Kartutxo, Kartuxo Pub, Lau, Landa Harategia, Landa taberna, Lizzy, Lopez goxo denda, Luvik, Maren, Maidagan, Mapfre, MG etxea, Muebles Anton, Mirari jantzi denda, Oinez, Orbea, Pol Pol, Sara jantzi denda, Skandalo, Sua, Sugar, Urkioka, Urnobotza, Xagua, Yudego farmazia, Ziarda harategia, Zazpi, Antxustegi, Aranburu, Arkupe, Azkue Beitia Arriola, Bidasolo, Biok, Bolintxo, Castillejo estankoa, Leku bideo kluba, Doña Mercedes, Eizagirre okindegia, Fadek, Gabilondo etxebizitza agentzia, Garate, Goki, Gorostiza, Izel liburudenda, Hotzak, Ibamar, Idama, Ipintza, Ikane, Ikus optika, Iriondo taberna, Iriondo altzariak, Iratxo taberna, Iriondo kirolak, Iturri taberna, King Kong, Lanbroa, Lete, Leigar, Karkizano, Nuvan, Ongi, Mekanosa, Murua-

mendiarrak, Presst, Sahatzu, Surya, Uzuri, Zurich, Txiriboga taberna, Aldaz hortz klinika, Jai Alai, Kala loradenda, Mugape, Sigma jatetxea, Gabi, Eroski, Eroski Bidaia, Aterpe, Createch Medical eta, batez ere, Elgoibarko Udalarari, Alzolako Urak-i, Beristain Logistika Banaketari, Udal Kirol Patronatuari, Goitiri, Opel-Hyunday-Toyotari eta Kutxari. Bestalde eskerrik beroenak parte hartu zuten neska-mutilei eta laguntzen egon ziren gurasoei.

Datorren urtean apirilaren 10ean ospatuko den XVIII. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Jose Gurrutxaga krosa batzordea

Ez dira eredugarri

Joan zen ostiralean prentsan agertu zen argazki baten harira idazten dizuet, nire haserrea adierazteko. Garagardo azokaren inaugurazio ekitaldikoa da argazkia, eta Elgoibarko udal agentziak ageri dira bertan, pitxer handiak eskuan dituztela, topa eginez. Ez zait inondik inora egokia iruditzen eredu eman beharko luketen horiek garagardo pitxarkadekin ikustea. Botiloia debekatzea eta irudi hori zabaltzea ez datoz bat. Kontraesan bat dago hor. Udal agentzietan eredu eman beharko lukete, eta ez zait iruditzen hori denik biderik egokiena.

A.A.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 · 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Anjel Ugarteburu

Kaskoan banitian mintzagai ziren kontu serio batzuk, baina kasu egingo diat gaurkoan. Umoretik, beraz, Angel.

Hiru pasadizo nik ere, eta hirearen bizkar-hezurrari jarraituz gainera.



Andres Alberdi

Kaskoan banitian mintzagai ziren kontu serio batzuk, baina kasu egingo diat gaurkoan. Umoretik, beraz, Angel.

Hiru pasadizo nik ere, eta hirearen bizkar-hezurrari jarraituz gainera.

► Elgoibarkoak zituan senar-emazteak, hire oso gertukoak biak, eta Lisboako taberna bateko terrazan zeudean kafea hartzen. Han non ikusten dituzten 80 bat urteko zirt eta zarteko bi amama turista, safari-jantzian, hirian zehar paseoan. Andre elgoibartarrak orduan gizonari: - Nik ere neure burua horrela ikusten dut 80 urterekin, ahizpa eta biok munduan zehar bidaiatzen. (Hirean, Angel, andreak gizonarekikoak bakarrik; honetan, senarrarenak eta koinatuarenak egin zitian, alajaina!).

“Txistek eta berdekeriak idazten bajituagu, jendeak kalean ere kasu”

► Andaluziako eskola batekoa, hurrengoa. Etsamina esku artean, gazteak. Pariseko gau-bizitza ederto asko islatu zuen Toulouse-Lautrec margolariaren izenaz galdetu maisuak, eta honela erantzun mutilak paperean: *Tululu III*. Belari andaluzera egina inondik ere mutilaren belari fina, eta frantseseko ahoskerari (*Tuluz-Lotrec*) ukitu andaluz beteriko txibatazioa (*tululu-tre*) ezin asmatu paperera eramaten!

► Bertsolari handi baten bi pasadizo, amaitzeko.

- Donostian, ardoz ondo betetako batek, zutik ezin joanean, aldamenetik pasatzean: - Aio, Bilintx!. Eta bertsolariak hitzetik hortzera erantzuna: - Aio, Balantx!

- Lagun batek behin burutik txapela kendu Bilintxi, eta barre egin nahian: - Oi, oi, Indalezio, hire buruak gazta zirudik, leun-leuna eta zuri-zuria zegok eta! - Ba, hireak, kanposantua ematen dik, *ilez* betea zegok eta.

“Kaskoan banitian mintzagai ziren kontu serio batzuk, baina kasu egingo diat”

► Elgoibarkoak zituan senar-emazteak, hire oso gertukoak biak, eta Lisboako taberna bateko terrazan zeudean kafea hartzen. Han non ikusten dituzten 80 bat urteko zirt eta zarteko bi amama turista, safari-jantzian, hirian zehar paseoan. Andre elgoibartarrak orduan gizonari: - Nik ere neure burua horrela ikusten dut 80 urterekin, ahizpa eta biok munduan zehar bidaiatzen. (Hirean, Angel, andreak gizonarekikoak bakarrik; honetan, senarrarenak eta koinatuarenak egin zitian, alajaina!).

► Andaluziako eskola batekoa, hurrengoa. Etsamina esku artean, gazteak. Pariseko gau-bizitza ederto asko islatu zuen Toulouse-Lautrec margolariaren izenaz galdetu maisuak, eta honela erantzun mutilak paperean: *Tululu III*. Belari andaluzera egina inondik ere mutilaren belari fina, eta frantseseko ahoskerari (*Tuluz-Lotrec*) ukitu andaluz beteriko txibatazioa (*tululu-tre*) ezin asmatu paperera eramaten!

► Bertsolari handi baten bi pasadizo, amaitzeko.

- Donostian, ardoz ondo betetako batek, zutik ezin joanean, aldamenetik pasatzean: - Aio, Bilintx!. Eta bertsolariak hitzetik hortzera erantzuna: - Aio, Balantx!

- Lagun batek behin burutik txapela kendu Bilintxi, eta barre egin nahian: - Oi, oi, Indalezio, hire buruak gazta zirudik, leun-leuna eta zuri-zuria zegok eta! - Ba, hireak, kanposantua ematen dik, *ilez* betea zegok eta.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Urriaren 25a jaiegun ofiziala izango da Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, PSE-EEK eta PPK hala erabakita. Gernikako Estatutuaren urtemuga ospatzeko, Euskadiren Eguna izendatu dute.

Zer iruditzen zaizu urriaren 25a jaiegun ofiziala izatea?



F. Javier Beato
26 urte, langabetua

Zer iruditzen zaidan? Oso ondo, jakina. Egutegian beste jaiegun bat izatea beti da ona. Seguru jaiegun bat jarri eta beste bat kenduko dutela, baina tira. Orain langabezian nago, eta oraingoz ez dit askorik eragingo, baina nik uste dut lanean dabiltzanek eskertuko dutela.



Asuncion Mosteiro
56 urte, geriatría laguntzailea

Oso ondo iruditzen zait. Jaiegunak beharrezkoak dira, eta nik uste dut langileek eskertuko dutela, beste egun bat izango dutelako familiarekin egoteko, eta aste barruan egin ezin dituztenak egiteko. Edozein aitzakia da ona atsedean eguna hartzeko.



Victor Makovka
29 urte, Sat-eko langilea

Ondo iruditzen zait. Niri politika kontuak ez zaizkit batere interesatzen. Berdin zait hau, hori edo hura. Egutegian jaiegun bat gehiago izanogo dugu, besterik gabe. Nik, gainera, jaiegunetan ere lan egiten dut, eta beraz, oraingoz ez dit askorik eragingo.



Koldo Aranburu
56 urte, fresadorako langilea

Beste inposaketa bat gehiago dela iruditzen zait. Horrela jarraitu nahi badute, jarrai dezatela, euren esku dago-eta, baina garbi esan behar diegu inposaketa bat dela hori hemen. Egun horretan, urriaren 25ean, ez dago ezer ospatzeko gurean.

Haurre Eskolak
www.haurreeskolak.net

Irailean eta urrian hasteko matrikulazio epea zabalik

Malatzaren 3tik 14ra (biak barne)

Elgoibarko Haurre eskola
943 742 141



Ermuaran-Sallobentera joateko bidea ez dago egoera onean: “Umearekin joaten naiz sarri Ermuaran-Sallobentera paseatzera, eta Azkarateko errepepide zaharretik joan behar izaten dut, beste bidea oso egoera txarrean dagoelako. Ibarrenea eta Ibartxiki baserrien artean lurra ez dago ume-aulkiarekin joateko moduan. Errepidetik joateak arrisku handia dauka, auto batzuk oso azkar ibiltzen direlako. Ez dakit noren lana den, baina, guraso asko joaten gara Ermuaran-Sallobente aldera, eta eskertuko genuke ingurune hori apur bat txukuntzea”.



Sigman egin duten errotonda berriak ez du ezertarako bali: “Sigmako errotonda berriak gauzak erraztu beharrean zailago jarri ditu. Ez al zen errazagoa errotonda biribil bat egitea? Madalakoak ematen dituen arazoak ikusita, berriz gauza bera egitea, ez dut ulertzen. Gainera, Sigma auzoari irtenbide bat emango ziola uste genuen, baina momentuz, Sigmako auzokideontzako ez dago aldaketarik. Gure auzoko sarrera-irteera oraindik ez dute konponitzeko, eta hori bai dela benetako beharra”.



Txalo bat Mendaroko Udalari, herrira ongi-etorria egiteko kartela lekuz aldatu eta bistan jarri dutelako: “Herri sarreran dagoen kartela ezkutuan zegoen, beste kartel handiago baten atzean, baina apur bat aurreratu dute, eta orain oso ondo ikusten da. Mila esker”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

I. eta III. URTEURRENAK



JUANA BARRUTIA GABILONDO
eta
RAMON CANALES TRUEBA

Zuen oroimenak indartzen gaitu

2009ko apirilaren 16an hil zen



2007ko maiatzaren 2an hil zen

Olasoko errotonda berriak aldaketak eragin ditu Sigmako zubiko sarrera-irteeran

Joan zen astean zabaldu zuten errotonda, eta gidari asko noraezean ibili dira

Joan zen eguenean zabaldu zuten Olasoko errotonda, eta hasierako egunetan zer egin asmatu ezinda ibili ziren gidariak. Errotonda berriak aldaketak eragin ditu trafikoan, Sigmako zubiko sarrera-irteeran, bereziki. Eibartik datozenak lehen bezalaxe sartu ahal izango dira Sigmako zubitik, baina Donostiatik datozenentzako debekatuta egongo da sarrera hori, eta Olasoko errotonda berriraino joan beharko dute. Sigmako zubitik irteerakoan, bestalde, Donostiarako bidea hartzeko ez dago inolako arazorik, baina, bai aldiz, Eibarrerantz joateko. Kasu horretan, Txankakuako zubiraino joan beharko da norabidea aldatzeko, edo, Santa Ana kaletik, Goiko Errota zubira joan, eta handik, Olasoko errotonda berria pasatu, bestela, N-634 errepidera irten ahal izateko.



Gotzon Garateren lagunen bilkura egingo dute bihar, Elgoibarren

1996. urtean bildu ziren lehen aldiz Gotzon Garateren lagunak Loiolan, eta ordutik, urtero eutsi diote ohitura horri. Hainbat herritan bildu dira dagoeneko, eta hamalagarren biltzarra Gotzon Garateren jaioterrian ospatuko zutela adostu zuten. Bihar egingo dute biltzarra, Elgoibarren. 11:30ean batuko dira Plaza Handian, eta Gotzonen jaiotetxeko oroitarria bisitatuko dute. Ondoren, Udalak prestatu duen erakusketa ikusiko dute, eta 13:00etan, meza izango dute Idotorbe-San Pedroko ermitan. Azkenik, bazkaria egingo dute San Pedro jatetxean.



Altzolan egingo duten zeharbidearen proiektuari lau proposamen egin dizkio Zubibai elkarteak



Gipuzkoako Foru Aldundiak Altzolan egingo duen zeharbideari buruzko proiektua aurkeztu du, eta, “ondo aztertu ondoren”, Zubibai elkarteak hainbat proposamen egin ditu horren harira. Lau dira elkarteak egin dituen proposamenak, baina horietako bi “bereziki” garrantzitsuak direla aipatu dute: batetik, zubitik Elgoibarretarako irteera ez kentzeko eskatu dute, eta bestetik, zeharbideak semaforoak behar dituela adierazi dute. Horrez gain, espaloiak zabalagoak izatea eskatu dute, eta autobus geltokiaren kokalekua “ondo” aztertzeko.

Azkenik, horrelako proiektuak egiteko orduan Altzolako bizilagunen iritzia kontuan hartzeko eskatu diote Foru Aldundiari.

Izena **Joseba Fernandez**



Joseba Fernandez Diazek zinegotzi kargua hartu zuen egueneko osoko bilkuran, eta aita ordezkatu du. Izan ere, Miguel Fernandez PSE-EEko zinegotzia jaioterrira, Ciudad Realera, itzuli da lan kontuengatik. 2007an hartu zuen kargua Miguel Fernandezek, eta kargua utzi nahi zuela jakinarazi zuenean, zerrendan bere ondorengo ziren biek uko egin zioten hura ordezkatzeari. Azkenean semeak hartu dio lekukoa.

Eguna **Maiatzaren 1a**

Bihar, maiatzak 1, Langilearen Nazioarteko Eguna ospatuko da mundu osoan, eta hori dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu LAB sindikatuak Debabarrenean. "Langileon borroka, aldaketaren indarra" lemapean, manifestazioa antolatu dute biharko. Eibarko Untzaga plazatik abiatuko dira, eta manifestazioa amaitu ostean, bazkaria egingo dute.

Irudia **Herri Eskolako patioa**

Gaur inauguratuko dute Herri Eskolako patio berria. 700 metro koadroko gu- ne estalia egin dute, eta bertan, eskubaloi kantxa bat eta saskibaloiko bi kantxa egin dituzte. Horrez gain, ikusleentzako harmailak ere jarri dituzte. Obrak 475.629 euroko kostua izan du, eta Hezkuntza Sailak eta Elgoibarko Udalak ordaindu du- te. Aurrerantzean, beraz, euria egin arren, kirol ekintzak egiteko aukera izango du- te Herri Eskolako umeek.



Preso eta iheslarien aldeko elkartasun kantak

Euskal preso eta iheslariei elkar- tasuna adierazteko kantak biltzeko deia edin dute Debabarreneko ezker abertzaleko hainbat lagunek. Eki- men horretan edonork hartu dezake parte, eta interesatuek *elkartasu- nohiua@abantian.info* helbidera bi- dali beharko dituzte abestiak, uztai- laren 20a baino lehen. Informazio gehiago, *www.abantian.info* helbide- an.

Oporrak zaharren egoitzan igaro nahi dutenentzako izena emateko epea hasi da

Elgoibarko Udaleko Gizarte On- gizate Sailak jakinarazi du zabaldu dutela zaharren egoitzetan aldi ba- terako egonaldiak egiteko eskabide- ak aurkezteko epea. Hona hemen epeak: uztailako aldi bateko egonal- dietarako: maiatzak 14 (ostirala). Abuztuko aldi bateko egonaldietara- ko: maiatzak 28 (ostirala), eta iraileko egonaldietarako: ekainak 11 (ostira- la).

Rosa Maria Lozano eta Kontxi Prieto, patata tortilla lehiaketako irabazleak

Rosa Maria Lozanok eta Kontxi Prietok irabazi zuten Zubibai elkarte- ak antolatutako patata tortilla lehia- keta. Lehenengoak 50 euroko saria jaso zuen, eta bigarrenak, 20 euro- koa. Eguraldi ona egin zuen, eta an- tolatzaileen esanetan, giro ezinho- bea izan zen Altzolako frontoian. Ha- mabi tortilla aurkeztu zituzten lehia- ketara, eta, Zubibaiko kideek esan dutenez, irabazlea aukeratzeko "lan handia" izan zuen epaimahaiak.





Etxebizitza


AMAITU DA ETXEBIZITZEN SEKTOREAREN GAINBEHERA

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko etxebizitza merkatua suspertzen ari dela dirudi, eta adituen arabera, sektorearen gainbehera amaitzen ari da. Etxebizitzen burbuilak eztanda egin zuen, eta garai gogorak bizi izan ditu sektoreak, baina hasi da berriro indarberritzen. Azken 21 hilabeteetan izan diren emaitzarik onenak lortu ditu sektoreak 2010eko otsailean.

Etxebizitzen salmenta %44 hazi da, eta INEk (Espainiako Estatistika Institutua) emandako datuen arabera, aurtengo otsailean iazko hilabete berean baino %38,7 hipoteka gehiago eman dituzte etxebizitzak erosteko Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian. 3.201 hipoteka eman zituzten guztira 2010eko otsailean, eta iaz, berriaz, 2.228 eman zituzten. Hipoteka horiek lurraldeka az-

tertzen baditugu, hauxe izan da emaitza: Bizkaian 1.576 hipoteka eman zituzten banketxeek; Araban, 831 eta Gipuzkoan, 794. Era berean, hipoteka horiek eman ahal izateko kapitalak ere gora egin du, eta iaz baino %42,76 gehiago eman dute; guztira, 465,2 milioi euro, alegia. Maileguak, bestalde, %2,63 txikitu dira, eta orain, 140.273 eurokoa da batez besteko hipoteka.

Datu asko, eta onak dira, azken 21 hilabeteak kontuan hartuta. 2008ko maiatzean 3.302 hipoteka eman zituzten banketxeek, eta ordutik, zenbakiak behera egin dute nabarmen, aurtengo otsailera arte. Hala ere, 2006ko datuetatik urrun dago zenbaki hori. 2006ko maiatzean izan zuen etxebizitza sektoreak suspertze handiena, eta hilabete hartan 4.603 hipoteka eman zituzten banketxeek.



Unastegi ETXE AGENTZIA

- MADALAN logela bakarreko eta hiru logelako etxebizitzak garajearekin
- Etxebizitzak 100.000 €-tik aurrera

Bernardo Ezenano, 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel.: 943 743 492 - 625 708 042
e-posta: info@unastegi.com • www.unastegi.com

Txintxo
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tel: 943 742 674

ARBEOA
ETXEBIZITZA AGENTZIA

20 URTEKO ESPERIENTZIA ETA PROFESIONALITASUNA SALTZEKO NAHIZ ALOKATZEKO DAUDEN HIGIEZINEN KUDEAKETAN

San Frantzisko kalea, 34 behea
Tel.: 943 748 427 - 699 953 021

AZKEN ETXEBIZITZA SALGAI



Elgoibar: Errosario kalea, 35. zbkia.
Kalitatezko etxebizitzak.
Galdetu konpromisorik gabe.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

INMOBILIARIA ZERBITZUAK - BARNEKO ARKITEKTURA
Tel./Fax: 943 742 306 - Mugurua: 800 408 000 / 800 041 040
sagarmin@raiketak.com - www.raiketak.com



INMOBILIARIA ESTUDIO PS XXI

INMOBILIARIA ZERBITZUAK ETA BARNEKO ARKITEKTURA

Tel./Faxa: 943 742 306

- ▲ San Roke-Arregitorre, 90 metro koadro inguru. Bizitzen jartzeko moduan. Herrira begira. Jangela-egonglea, sukaldea, hiru logela, bainua, komuna, berogailua, eta garajea. Dena kanpora begira. 40 milioi pezeta / 240.400 euro.
- ▲ Urasandi. Bizitzen jartzeko modukoa. 90 metro koadro inguru. Egongela, sukaldea, hiru logela, bainua eta komuna, berogailua, balkoia. 35 milioi pezeta / 210.350 euro.
- ▲ Santa Ana. 5. solairua. Igogailuarekin. 56 metro koadro inguru. Egongela, sukalde handia, patio batera ematen duten bi logela, eta bainua. Etxe erdiak inguru kanpora ematen du. Despentsa dauka, baina berogailurik ez. 26 milioi pezeta / 156.200 euro.
- ▲ P. Muguruza: 70 metro koadro inguru. Bizitzen jartzeko modukoa. Egongela, sukaldea, hiru logela, bainua, berogailua, 70 metro koadro inguruko terraza, ganbara, eta garajea (marraduna) 37 milioi pezeta / 222.375 euro.



DORRETXEA SALGAI SORALUZEN



- ✓ 750 m²
- ✓ 2.000 m² -ko terrenoa
- ✓ 2 sarrera
- ✓ 4 solairu
- ✓ Bidea bertaraino
- ✓ 4 etxebizitza egiteko aukera
- ✓ 360.000 € (60.000.000 pezeta)

Tel.: 679 155 980

Alegazioetarako hilabeteko epea amaituta, trenbide ertzeko ortuak kentzeko behin betiko agindua eman du Udalak

Legeak dio trenbide ondoan ezin dela ezer eraiki ezta jarri ere bost metroko tartean

Eusko Trenbide Sareak egindako eskaera bati erantzunez, Igartualdea industriagunean (Esser) trenbide ertzean sortutako ortuak eta eraikitako etxolak bertan behera lagatzeko eskatu zien Mendaroko Udalak erabiltzaileei, martxoaren 26an sinatutako ohar baten bidez. Idatzia dio segurtasunaren izenean hartutako erabakia izan dela, eta Udaleko iturriker berretsi dute arriskuak saihestea izan dela erabaki hori hartzeko arrazoi bakarra. Iturri horien arabera, Eusko Trenbide Sareak Udalarari lur horiek libre lagatzeko eskatzen zion bigarren aldia zen. Udalak, hilabeteko epea eman zien erabiltzaileei ortu horiek laga eta alegazioak aurkezteko.

Trenbide ertzeko lur horiek erabilera publikoko lurra dira, hainbat herritarrek itxi eta bere egin dituztenak, agirian jartzen duenez. "Ortuetakoz batzuk sarek eta egurrezko hesiek itxi dituzte, lur horiek pribatizatuz, eta lurrez bete dituzte, horrek trenarentzako darraren arriskuarekin", dio agiriari. Idatzi horiek berak dio etxola eta teilape guztiak baimenik gabe eraiki dituztela, eta legez kanpoak direla. Izan ere, legeak dio trenbidearen



Udalaren ohartarazpena Igartualdea industriaguneko ortu bateko atesarean.

albo bietara gutxienez bost metroko tartea gorde behar dela garbi, balizko arriskuak saihesteko. Ortuak egiteko, lurrez bete dituzte leku pendizak, eta lur jausiak izateko arriskuak ohartarazi du Eusko Trenbide Sareak.

Hilabeteko epea bete da Udalak jakinarazpen hori jarri zuenetik, baina baratzeek lehengo lekuan jarraitzen dute. Udalak jakinarazi duenez, erabiltzaileetako bakarren batek

luzapen bat eskatu die, landatutakoaren uzta jaso ahal izateko, baina gainerakoan, arazorik ez dela izan nabarmendu dute, eta hilabeteko epea beteta, erabakia irmoa egiteko ebazpena idazteko unea dela zehaztu dute. Horren harira, kexa agertu du zenbait komunikabideek plazaratutako informazioarekin. Ez dagoen lekuan eztabaida sortu dutela uste du Udalak.



Mendaroko mendi martxa antolatu dute biharko

Mendaroko mendi itzulia izango da bihar, Gazte Asanbladak antolatuta. Parte hartzaileak 7:30ean irtengo dira Gaztetetik, eta ondorengo ibilbidea osatu beharko dute: Beraseta, Madariaga, Larraskanda, Garalutz, Lizarpe, Sarube, Sasiola, Ormolako Potzua, Arnoate, Plaza auzoa eta Gaztetxean amaitu. Ibilbidea neurtu ez badute ere, 36 kilometro inguru osatu beharko dituzte parte hartzaileek. Nekeari aurre egiteko, jana eta edatekoa banatuko dituzte antolatzaileek Larraskandan eta Ormolako Potzuan. Era berean, bukaeran mokadutxoak jateko aukera izango da Gaztetxean.

Izenemateak egunean bertan egingo dira, mendi martxa hasi aurretik. Hori dela-eta, goizeko 7:00ak alderako agertzeko eskatu diete antolatzaileek parte hartzaileei, irteera berandutu ez dadin. Izenemateak hamar euro balio du.

Urtetik urtera gero eta jende gehiago batzen da Mendaroko mendi martxara. Iaz, 35 lagun inguruk izena eman zuten, eta giro onean osatu zuten ibilbidea.

Debabarreneko dantzariak hartu zuten zapatuan Herriko Enparantza



Jendetza handia batu zen Mendaron Zapatuan, Biraka dantza taldeak antolatutako *Dantza-barra* ikuskizuna ikusteko. Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira antolatu zuten ekitaldia, eta Debabarrenako berrehun dantzari baino gehiagok parte hartu zuten. Munduko

beste hainbat lekutan bezala, dantzan hasi aurretik, Dantzaren Nazioarteko Eguneko eskutitza irakurri zuten antolatzaileek. Aurten, Julio Bocca dantzari eta koreografo argentinarrak idatzi du eskutitza. www.elgoiBARREN.net webgunean daukazue bideoa eta argazki gehiago.

Taldeka, bigarren sailkatu da Iker Maiora Madrilgo maratoian

Madrilgo maratoia jokatu zen domekan, ibilbideari dagokionean maratoirik gogorrenetakoa, eta Iker Maiorak sasoiari dagoela erakutsi zuen. 2:33:38ko denbora egin zuen, eta 22. sailkatu zen -15.000 atletek parte hartu zuten-. Taldeka, berriz, bigarren egin zuen Maiorak Goierri Garaiaiko bere taldekideekin, Albaceteren ondoren. Bakarka, Thomson Cherogony kenyarra gailendu zen, 2:11:54ko denborarekin.

Bere marka ontzerik lortu ez zuen arren, pozik agertu da. "Ibilbide gogorra da oso, gorabehera askokoa, eta hori aintzat hartuta gustura egoteko modukoa da. Lauan, lau kilometro ere ez dira izango jarraian. Gutxienez 2:35eko denbora ondu nahi nuen, eta hori behintzat lortu dut. Beste pare bat minutu gutxiagoan egiteko gai nintzela uste nuen, baina pozik nago egindakoarekin", azaldu du etxera bueltan.

Musika jaialdia izango da gaur Trinitate ermitan

Mendaroko eta Mutrikuko musika eskolek jaialdi bat eskainiko dute gaur, 18:30etik aurrera. 18:45ean, Mutrikuko Banda Txikiarekin kalejira egingo dute, Trinitate ermitaraino. Gero, 19:00etatik aurrera, Mutrikuko musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Trinitaten, Mendaroko hainbat ikaslek lagunduta. Kontzertuaren ostean, 19:45ak aldera, Mutrikuko eta Mendaroko trikitilariarekin kalejira egingo da frontoiraino. Han, Mendaroko haize taldeak eta Mutriku eta Mendaroko koruek azken saio bat eskainiko dute.

Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia antolatu dute, maiatzaren 4rako

Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia eskainiko du Arrate Plazaola Donostiako Institutu Onkologikoko zuzendariak maiatzaren 4an, Mendaroko udaletxeko udalbatza aretoan. Katxalin-ek, bularreko eta ginekologiako minbiziaren emakumeen elkarteak, antolatu du hitzaldia, eta 18:00etan hasiko da.

Hasiera ona Julia Agirre pilotu gaztearentzat

Gipuzkoako Foru Aldundia Kopako lasterketa jokatu zuen Julia Agirrek domekan, Olaberrian, eta hasiera bikaina izan zuen. Lehenengo aldia da jokatzen duena, 1994 eta 1997 urteen artean jaiotakoentzako proba delako. Guztira 130 pilotuk parte hartu zuten, eta azkeneko bi kanporaketak kontuan hartuta, denetan denborarik onena egin zuen Juliak: 46 segundo eta 53 ehunen, bigarren sailkatuak baino bost ehunen gutxiago.

3.600 litro garagardo, 700 txerri ukondo eta 2.500 saltxitxa zerbitzatu dituzte asteburuan

Estreinako aldiz egin dute Garagardo Feri Elgoibarren, Trinitateetako Danborradak antolatuta, eta antolatzaileak "pozik" agertu dira asteburuak eman duen emaitzarekin. 3.600 litro garagardo, 700 txerri ukondo eta 2.500 saltxitxa zerbitzatu dituzte guztira. Lehen esperientzia honen balorazio oso positiboa egin dute Atabal elkarteko kideek. "Giro ezinhobeia egon da eta jendeari asko gustatu zaiola uste dugu", adierazi dute. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Udalari, Beristain banatzaileari eta ferian lagundu duten guztiari. Argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net



Danborradako gazteek ere



Bikustik taldeak girotu zuen zapatu gaua.



Jende asko ibili da, eguenetik domekara arte.



Gosea asetzeko txerri ukondoak eta saltxitxak prestatu zituzten.



Zerbitzariak ez zuten atsedenik hartu.



Juan Carlos Arrieta, antolatzaileetako bat, pozik, Inazio Mugertzarekin topa eginez.



Indu zuten sukaldean.



Danborradako emakumeak tiketak saltzen.



Sukaldean ere giro onean egin zuten lan.



Udal agintariek inauguratu zuten garagardo feria.



Koadrila bat afal ostean berbetan.



Elgoibarko koadrila asko elkartu ziten garagardo ferian.



JULIAN NEGREDO Argazkilaria

Auschwitzeko museoan egindako argazkiekin ‘Auschwitz. Heriotza eta izugarrikeria’ izeneko erakusketa osatu du Julian Negredo argazkilaria valentziarrak, eta bi astez, maiatzaren 15era arte, Elgoibarren izango da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Naziek egindako basakeria gogorarazten du artistak, eta heriotza azaleratzen dute haren argazkiek, hilotz bakar bat erakutsi gabe.



“Hango ankerkeria erakutsi nahi izan dut, Auschwitzen nik neuk sentitu nuen ikara agertu”



Erizaina zara ofizioz, eta argazkilaria afizioz. Noiz eta nola bururatu zitaizun Auschwitzeko kontzentrazio eremuaren gaineko erakusketa osatzea?

Kasualitatez izan da, egia esan. 2007an Cracoviara joan nintzen, iloba bat ikustera, eta orduan hasi zen dena. Han geundela, Auschwitzeko museoa ikustera joan ginen, eta hunkituta irten nintzen handik. Izugarria

da, basakeriaren ispilu garbia. Jende asko dabilen lekua izanda eta *flash*-a erabili ezin denez, presaka eta erdi ezkutuan atera nituen argazkiak, eta gordeta izan ditut luzaroan, inoiz ez zaidalako bururatu haiekin erakusketa bat egitea. 2008ko udan, baina, *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* irakurri nuen, eta argazki haiekin bildumatxo bat egitea pentsatu nuen. Sei bat argazki batu eta Guadalajarako Abeja de Oro (Urrezko erlea) lehiaketara aurkeztu nituen, eta hara non, lehenengo saria eskuratu nuen. Diru bat jaso nuen, eta nire lanaren mila kopia inguru banatu zituzten Espainian. Hala osatu nuen erakusketa. **Irudiei testua gehitu diezu. Zer da zure erakusketan ikusiko duguna, eta zer adierazi nahi izan duzu?**

Hango ankerkeria erakutsi nahi nuen, gizakia zer egitera iritsi daite-

keen. Horretarako, garaiko prentsa idatziak argitaratutako berriak gehitu dizkiet argazkiei. Kontzentrazio eremua zer izan zen eta naziek Polonian egindako sarraskia kontatu nahi izan dut 30 argazkitan. Eta bide batez, neuk sentitu nuen ikara hori agertu Sepia kolorea eman diet, koloretan erdia ere ez dutelako esaten. Antzinako artxibo batetik hartu banitu moduan jarri nahi nituen. **Gorpurik ikusi ez arren, heriotza ikusi zenuela diozu prentsa agerian.**

Bai, bai. Izua da hitza. Anekdotak gisa beti gauza bera kontatzen dut, baina ondo adierazten du hangoa zer den. Sarrera ordaindu arren, atzera egin zuen jendea ere ikusi nuen atarian. Barrura sartzen ausartu ez zena. Nik ikusi beharra neukan, baina. Oilo larria ere jarri zitzaidan. Tonaka ile, betaurreko eta zapata ikusten dituzu han, gas hodiak ere bai... beldurgarria da hangoa.

Kenyara bidai bat irabazi berri duzu argazkiokin. Hurrengo erakusketa zer izango da Kenyari buruzkoa?

Ba ez daukat ezer buruan, baina ez legoke gaizki. Paraje itzela izan behar du. Egia esan, niri argazkiak egitea baino gehiago muntaia digitala gustatzen zait. Beste sormen lan bat. Aurrerago, behar beste material biltzen dudanean, gustatuko litzaidake erakusketaren bat jartzea.

Marrazki eta idazlan lehiaketako sariak banatu zituen Udal Liburutegiak, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira

Uxue Alberdi eta Jasone Osororen liburuak dituzte gustukoen gaztetxoek

Liburuaren Nazioarteko Egunaren bezperan banatu zituen Udal Liburutegiak marrazki eta idazlan lehiaketako sariak. *Nire lagunik onena munduaren beste puntan jaino da*, izan da aurtengo gaia, eta, guztira, Lehen Hezkuntzako 463 umek hartu dute parte. Irabazleak hauek izan dira: Lorena Etxaniz (LH1), Eider Cerdeira (LH2), Nora Astigarraga (LH3), Janire Rodriguez (LH4), Ainhitze Beristain (LH5), eta Unai Astiazaran (LH6).

JUUL hauteskundeak

Liburuaren egunaren harira, bestalde, JUUL hauteskundeak egin dituzte Euskal Herriko ikastetxeetan, gaztetxoei gehien gustatzen zaizkien liburuak zeintzuk diren jakiteko. DBHn, Jasone Osororen *Ezekiel* liburua aukeratu dute, eta Batxilergoan, Uxue Alberdi-*ren Aulki joko*a.

Elgoibar Ikastolan 415 ikaslek hartu zuten parte. Lehen Hezkuntzan Toti Martinez de Lezearen *Nur* liburua jaso zituen boto gehien, eta DBHn, Jasone Osororen *Ezekiel* liburua izan zen gustukoena.



San Bartolome parrokia bete egin zuen Loureiroko musika bandak



Loureiroko (Portugal) musika bandak kontzertua eskaini zuen zapatuan, eta San Bartolome parrokia bete egin zen. 70 musikari inguruk osatzen dute talde portugaldarra, eta banda gaztea den arren, arrakasta handiko taldea da. Elgoibarko musika bandaren 125. urteurreneko ospakizunen artean, bigarren kontzertua izan zen. Ekainean, Eibarko eta Bergarako musika banden emanaldiak izango dira, eta uztailean egingo dute 125. urteurreneko ospakizun ekitaldi ofiziala. Urte amaierara arteko ekitaldiak antolatu dituzte.


Tortilla eta txorizo pintxoak banatu zituzten Elgoibarko Klub Deportibokoek

Hileko azken zapatuko nekazaritza eta abeltzaintza feria (urteko bigarrena) egin zen zapatuan, eta Elgoibarko Klub Deportiboko kideek tortilla eta txorizo pintxoak banatu zituzten Nafarroa Plazan. Herriko baserritarrek emandako generoa erabili zuten pintxoak egiteko. Era berean, Gabi jatetxeak ere herriko baserritarren produktuekin egindako pintxoak eta menua eskaini zituen egun horretan.



Jose Gurrutxagaren omenez, saltaka

Jose Gurrutxaga krosa egin zuten domekan, Elgoibar Ikastolak antolatuta. 543 lagun aritu ziren korrikalari elgoibartarraren omenez saltaka, eta eguraldia lagun, Plaza Handia jendez gainezka egon zen. Antxitxikalariek animoak eta txaloak barra-barra jaso zituzten. Jose Gurrutxagak berak eman zuen irteera hamahiru lasterketetan, eta sari banaketan ere hartu zuen parte, pozik eta irribarrets. Argazki gehiago eta sailkapena, www.ElgoiBARREN.net helbidean.



Esku hutsik itzuli da Grupo Eibar Espainiako eskubaloi txapelketatik

Laugarren postuan sailkatu dira elgoibartarrak

Esku hutsik eta min hartutako hiru jokalarirekin itzuli da Grupo Eibar taldea Espainiako eskubaloi txapelketatik. Barañainen (Nafarroa) jokatu zuten txapelketa asteburuan, eta, elgoibartarrekin batera, Kataluniako eta Nafarroako txapeldunek eta Madrilgo txapeldunordeak hartu zuten parte. Txapelketa gogorra izan dela aitortu du Lorea Gabilondo entrenatzaileak, eta emaitzetan jokalarien lesioek eragin handia izan du-



tela adierazi du. Laugarren postuan sailkatu dira elgoibartarrak.

25 lagun joan ziren Morkaikorekin Anbotora bizikletan



Estreinakoz antolatu du Morkaikok mendi-bizikleta irteera, eta antolatzaileak "pozik" geratu dira deialdiak izan duen erantzunarekin. 25 lagun joan ziren Anbotoko itzulia egitera, eta elgoibartarrez gain, inguruko herrietako mendizaleak ere izan ziren. Aurrerantzean antzerako irteerak antolatzeko ilusioz itzuli dira Morkaikoko kideak.

Joseba Etxeberriaren omenezko partida jokatu dute San Mamesen, maiatzaren 17an

Joseba Etxeberriaren omenezko partida jokatu du Athleticek maiatzaren 17an, 19:00etatik aurrera, San Mamesen. Futbol eskolako ehun umez osatutako talde baten kontra jokatu du talde zuri-gorriak. Hogei minutuko bi zati izango ditu partidak, eta, guztira, 200 umek hartuko dute parte. Euro bat balioko du sarrerak, eta lortzen den dirua Congoko Errepublikako Demokratikoan futbol zelai berria egiteko erabiliko dute.



EMAITZAK

FUTBOLA

Leioa 1 – Haundi 2 (3. maila)
Eibartarrak 3 – Elgoibar 4 (Erreg.)
Elgoibar 2 – Oiartzun 1 (Jub.)
Behobia 1 – Elgoibar 1 (Kad. A)
Elgoibar 3 – Urki 0 (Kad. B)
Elgoibar 5 – Urki 0 (Inf.)
Herrera 4 – Elgoibar 0 (Txiki)
Elgoibar 3 – Arrasate 2 (Aleb.)
Anaitasuna 2 – Elgoibar 3 (Neskak)

ESKU PILOTA

Debarroko txapelketa

Lagunak 22 – Bergara 8 (Kad.)
Lagunak 22 – Aretxabaleta 18 (Nag.)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 36 – Egia 37 (Sen. mut.)
Beristain Elg. 30 – Hondarribi 26 (Jub. mut.)
Astigarraga Elg. 12 – Leizaran 15 (Inf. nesk.)
Zarautz 17 – Lauko 33 (Kad. nesk.)
Ikus Elg. 8 – Zarautz 27 (Inf. nesk.)
Zarautz 21 – Aterpe Elg. 21 (Inf. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 1
11:30 Elgoibar – Tolosa (Kad. A)
17:00 Haundi – Retuerto (3. maila)
Domeka, 2
10:00 Elgoibar – Eibar (Futbol eskola)
11:30 Elgoibar – Vasconia (Inf. txiki)
15:00 Elgoibar – Amaikak Bat (Neskak)
17:00 Elgoibar – Anaitasuna (Erreg.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Domeka, 2
10:30 Lauko Elg. – Aloña Mendi (Kad. nesk.)
12:00 IMH Elg. – Bera Bera (Kad. nesk.)

Gaur sartuko da Elgoibar, Herriarteko pilota txapelketan

Elgoibarko Lagunak taldeak gaur ekingo dio Herriarteko pilota txapelketari. Andoainen kontra jokatu du estreinaldikoa, eta partidak han bertan jokatu dituzte. Hiru partida izango dira, jubenil, infantil eta nagusien mailan. Lehenengo norgehiagokak 20:30ean hasiko da.

LANA

ESKAERA

- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile aritzeko... Interna edo orduka. ☎ **648 736 067**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile aritzeko... Interna edo orduka. ☎ **638 899 860**
- Bikotea baserrietan nagusiak zaintzeko prest. ☎ **677 575 370 / 655 152 901**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo portalak garbitzeko prest. ☎ **677 575 370**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **649 044 223**
- Neska gaztea eskaintzen da adineko jendea zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **666 771 701**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo haurrak zaintzeko eta portalak garbitzeko. ☎ **638 344 377 / 943 530 795**
- Gizon bat eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako, igeltsero lanetarako, banatzaile aritzeko edo pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **638 344 377**
- Neska gaztea eskaintzen da tabernako sukaldean lane egiteko, garbiketa lanetarako edo haurrak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **657 142 376**
- 23 urteko neska euskaldun bat eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko, umeak zaintzeko edo etxeak garbitzeko. ☎ **696 794 107**
- Sukalde laguntzaile aritzeko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta portalak edo soziedadeak garbitzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko prest. ☎ **699 609 190**
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **618 163 061**

- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **686 234 612**
- Neska, arratsaldean edo gauetan lan egiteko prest. ☎ **646 821 678**
- Neska lanerako prest: garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **613 786 976**
- Neska lanerako prest: garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **646 235 195 / 943 531 903**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko gertu. ☎ **649 808 071**
- Mutila, nagusiak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **649 808 071**
- Mutila, nagusiak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **648 143 804**
- Gizona zerbitzari, garbitzaile edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎ **686 077 316**
- Neska, arratsaldean edo gauetan lan egiteko prest. ☎ **646 821 678**

ESKAITZA

- Jatetxe batek asteburuetarako zerbitzaria behar du. ☎ **943 121 262**
- Zerbitzaria behar da. ☎ **686 617 439**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Apartamentua daukat alokatzeko, Errosario kalean. Sukaldea, komuna, egongela, logela eta despentsa. ☎ **653 863 482**
- Etxe merkea salgai. Berrituta, berogailuarekin, oso egoera onean eta bizitzera sartzeko prest. 19 milioi pezeta. ☎ **679 155 980**
- Lokala traspasatzen da Pedro Muguruza etorbidean. Jatetxea etxebizitzarekin. ☎ **635 751 642**

- Conilen (Cadiz) apartamentu zoragarriak alokatzen dira. Garajeekin. ☎ **653 733 457**
- Pisua salgai Pedro Muguruza etorbidean. 68m2, garajea eta ganbara. ☎ **678 883 051/943 742 808 (gauetz)**
- Etxea konpartitzeko pertsona behar da. ☎ **648 210 852**

GARAJEAK ETA MOTORRA

- Karabana salgai. Egoera onean, oso ondo zainduta. Bost plaza, bi aterpe, bainu kimikoa, irauliezina. ☎ **679 729 194**
- Audi A4 2.5 TDI autoa salgai. Quattro, triptronic, larua, 17ko llantak, 165.000 kilometro, 2003 urtekoa. Egoera onean, merke. ☎ **651 819 582**
- Autokarabana merkea salgai. Benimar Europe 6000. ☎ **638 422 340**
- Honda CBR 600 motoa salgai. 1998koa, 46.000 kilometro. 2.400 euro. ☎ **697 575 645**
- Opel Astra 2.0 DTI Confort autoa salgai. 1999koa. 110.000 kilometro, hiru ate, llantak, aleroia, aire egokitu, CD kargadorea. ☎ **635 208 887**

BESTELAKOAK

- Santa Ana kalean 1957ko argazki bat aurkitu dut. San Pedron aterata dago. Udaltzaingoa laga dut.
- Edesa L-956T garbigailua salgai. 6 kilogramokoa, Practica modelo. Berria. 100 euro. ☎ **679 767 589**
- Alpino arrazako akerrak eta Espainiar arrazako moxalak salgai. ☎ **650 091 069**
- Betaurrekoak aurkitu ditut Andikanorako bidean. ☎ **943 741 860**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

MIOPIA EBAKUNTZAK
INTRALASE® FEMTOSEGUNDO LASERRAREKIN
FINANTZIAKETA EZIN HOBEA

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844



• Zorionak etxeko **belbitari**. Igandean, 9 urte! Ahizpa Leire eta Amaia, gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Alain**, lehengo domekan 7 urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoen, eta bereziki, Marenen partez.



• Astelehenean 2 urtetxo! Zorionak, **txapeldun!**




• Zorionak, **guapetona**, zure 6. urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ekain**, zure lehengo urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, Joaneren partez.



• Zorionak, **Unax**, asteazkenean 2 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Ibai**, igandean urtebete egingo duzulako. Anaia Beñat eta etxekoen partez.



• Zorionak, **Jon!** Gurasoen eta Ibanen partez, ondo pasa eguna!



• Zorionak, **Urkol** Dagoeneko, 2 urte! Muxu handi bat, aitatxo eta amatxoren partez.




• Zorionak, **Markel**, 11 urte egin zenituelako eguaztenean. Osaba-izeba, lehengusuak eta, bereziki, Manex txikiaren partez.



• Zorionak, **Ane**, domekan 7 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, eta muxu asko denon partez.



• Zorionak, **Enara**, printzesita, larunbatean urte bat egingo duzulako. Muxu handi bat familiakoen eta, bereziki, Unaxen partez.



• Zorionak, **Beñat eta Sare**, zuen 5. eta 1. urtebetetzean. Etxeko guztien partez, txokomarrubizko mila muxu bio!

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



URBERU SAGARDOTEGIA

**Haragia eta arraina pamillan: berezitasuna
Astebukaeran zabalik**

Elorriaga auzoa - ITZIAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 19 92 37

OKINDEGIA

1 zapatua EIZAGIRRE
2 domeka FOTERO

FARMAZIAK

	24 ORDUZ
30	Ettxeberria (Santa Ana)
1	Fernandez Goizez: Ettxeberria (Erros.)
2	Fernandez
3	Yudego
4	Zabaleta
5	Ettxeberria (Errosario)
6	Ibañez
7	Garitaonandia-Bidasolo

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik
www.elgoiBARREN.net



30 barixakua

Erakusketa

19:00 Argazki erakusketa
Ongarrik antolatuta, Julian Negredoren argazki erakusketa inauguratuko dute. Auschwitzeko kontzentrazio esparruko irudiak jarriko ditu ikusgai Kultur Etxean, maiatzaren 15era arte.

Musika

19:00 Musika jaialdia
Mendaroko eta Mutrikuko musika eskoletako ikasleen kontzertua, Mendaroko Trinitate elizan. Ondoren, kalejira egingo dute.

1 zapatua

Kirola

7:30 Mendaroko mendi itzulia
Gaztetxean hasiko da.

Gotzon Garateren lagunen biltzarra

11:30 Oroitarria bisitatzea

Plaza Handian bilduko dira, eta Gotzon Garateren jaiotetxera joango dira, oroitarria bisitatzea.

13:00 Meza

Idotorbe-San Pedroko ermitan.
14:00 Bazkaria
San Pedro jatetxean.

Erakusketak

12:00 Pintura erakusketa
Xiri Andonegiren olio pinturak jarriko dituzte ikusgai, San Bartolome kaleko 33. zenbakian.

3 astelehena

Santa Kurutz eguna

11:00 Meza
San Rokeko ermitan. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute.

4 martitzena

Hitzaldia

18:00 Bularreko minbizia
Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia izango da Mendaroko

udaletxean. Hizlaria, Arrate Plazaola, Donostiako Instituto Onkologikoko zuzendaria.

5 eguaztena

Ikus-entzunexkoa

21:30 'Uda eta negua Eslovenian'
Imanol Telletxea eta Maria Eugenia Eguzkiza mendizaleek Alpe Juliotarretara egindako bidaiaren azalduko dute. Musika eskolako auditorioan.

7 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka
2 urtetik 6 urtera arteko umeentzako eta hauen gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

LUDOTEKAKO EKINTZAK

ORAINDIK EZ ZARA BAZKIDE?

3. epea zabalik

- Maiatzetik uztaileira: 10€
- Familia ugariak %30eko deskontua.
- Ongizateko erabiltzaileek kuota salbuetsita.

GAZTELEKUKO EKINTZAK

UDARAKO PLANIK BAI?

2010eko udaleku itxiak martxan daude!

Izenematea zabalik, maiatzaren 12ra arte Gazte Informazio Bulegoan.

Informazio gehiago: gaztelekua@elgoibar.org

«La cinta blanca»

1, zapatua: 19:00/22:15
2, domeka: 19:00
3, astelehena: 21:30

Frantzia, Alemania, Austria, Italia, 2009. Zuz.: Michael Haneke. Akt.: Christian Friedel, Leonie Benesch, Ursina Lardi. 145 min. Alemaniako iparraldeko herrixka

bat, 1913. eta 1914. urteetan. Herriko maisuak eta guraso batzuek mutiko eta nerabeen abesbatza bat zuzenduko dute. Bat-batean istripu batzuek gertatuko dira.



Gure gomendioa

Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia

Maiatzak 4, martitzena, Mendaroko udaletxean

Bularreko minbiziari buruzko informazioa eskainiko du martitzenean Arrate Plazaolak, Donostiako Onkologikoko zuzendariak, Mendaroko udaletxean. Bularreko minbizia garaiz detektatzea oso garrantzitsua da, eta horri buruz hitz egin du. Hitzaldia 18:30ean hasiko da.



EUROPAR BANKETXEAK

Hedatzen ari den Europar banketxe batek finantza-aholkulariak behar ditu Euskal Herrian dituen bulegoetarako.

EZINBESTEKOAK DA:

- ① Unibertsitate ikasketak izatea.
- ① Trebetasun komertziala izatea.
- ① Lanerako ekimena eta ambizioa izatea.

AINZAT HARTUKO DA:

- ① Finantza eta banku kontuetan ezagutza izatea.
- ① Aurrez sektore honetan lan egindakoa izatea.

HONAKO HAU ESKAINTZEN DA:

- ① Europako izen handiko entitate batean lan egiteko aukera.
- ① Norbere ahalmen edo gaitasunaren arabera hazten laguntzeko plan bat.
- ① Prestakuntza plan osoa finantza eta aseguru gaitetan.

Curriculumak helbide honetara bidali behar dira:
asesores.financieros@euskaltel.net

«Un profeta»

30, barixakua: 22:15

«La nilera magica y el big bang»

2, domeka: 16:30

UN PROFETA. Frantzia, 2008. Zuz.: Jacques Audiard. Akt.: Tahar Rahim, Niels Arestrup, Adel Bencherif. 149 min.

Malik El Djebena gazteak ez daki ira-

kurtzen eta idazten, eta sei urteko espetxe zigorra ezarri diote. Kartzelan, Korsikako preso talde batekin egingo du bat. Haien konfiantza lortuko du pixkanaka. Drama da.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MAIATZAK 6 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN MAIATZAK 6 osteguna - 18:00 2. zikloa

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITZA MAIATZAK 8 larunbata - 11:00

areto nagusian,
etorri aurretik izena eman!



902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

Erretratu zaharra



1954

Aste honetako erretratu zaharra Lidia Iriartek lagatakoa da. 1954 urte ingurukoa da, eta Marañon etxea zegoen inguru hartan aterata dago. Hantxe bizi ziren Lidia bera eta bere familiakoak, eta ortuan atera zuten argazkia. Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Goiko ilaran: Toñi Moreno (umea), Catalina, Encarna, Isabel, Juan, Paco eta Antonia Moreno (umea). **Eserita, erdiko ilaran:** Maria, Manuel, Asunción, Paqui (umea), Nieves Kortabitarte (umea), Inmaculada Aizpurua eta Paca (†). **Behoko ilarako umeak:** Ascen Moreno, Cati, Lidia Iriarte, Rafael Iriarte (†), Juli Iriarte eta Maria Nieves Kortabitarte.



ESKERTZA

MARIA BEGOÑA ANDONEGI GURRUTXAGA

2010eko apirilaren 27an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ELGOIBAR ARREITURRE B.H.I. 2010-2011 IKASTURTEA

Elgoibar Arreiturre B.H.I.
Arregitorre 2
Tel.: 943 748 397
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net



BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

Teknologia (zikloetarako)

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

Aurrematrikulako datak:
Maiatzaren 3tik 12ra

GURASOENTZAT BILERA IREKIA: Apirilaren 28an, 19:00etan
IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA: Apirilaren 28an, 16:00etan
MEKAKO ARETOAN



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ERABILGAILUEN ERABILKETA

ERABILGAILUEN ERABILKETA

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2010-2011 ikasterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZARTE ZIENTZIAK



La  **Salle**
Eibar



Euskadi
2 0 0 9

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**

943 121 698

**maiatzaren
3tik 12ra**